

## Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



## Gandhi baketsua

Gorka Calzada

TXERTOA

142 orrialde

9,95 euro

## Gandhi-ren biografia berezia

Bederatzi-hamabi urte inguruko neska-mutikoei zuzendutako *Nor da?* bilduma plazaratu berri du Txertoa argitaletxeak. Itzal handiko pertsonen biografiak jaso dituzte, hizkera zuzen eta garbian, umore eta ironia ukituekin. Gandhi, Leonardo da Vinci, Marie Curie edo Einsteinen biografiak badira ere, egiazko pertsonak agertu nahi dizkiete egungo gaztetxoei, eleberrri edo ipuin bat bezala irakurtzeko moduko narrazioak eskainiz. Testuen osagarri gisa, *A Cuatro Manos Estudio* argentinarren irudiez gain, biografiekin lotutako ariketa bereziak

azaltzen dira. Esate baterako, Gorka Calzadak idatzi eta Nerea Galarzak euskaratu duen *Gandhi baketsua* liburuan, Gandhiren errezetak. ■



## Morfología del verbo auxiliar vasco. (Compendio / índice...)

Pedro de Yrizar

EUSKALZAINDIA

948 orrialde / 12 euro

## Pedro de Yrizarrek euskal aditzaz egindako lanaren emaitza

Urte asko hartu zizkion Pedro de Yrizarri euskal aditzaren morfologia aztertzeak. Euskalkiz euskalki aztertu zuen, eta orain Euskaltzaindiak plazaratutako *Morfología del verbo auxiliar vasco (compendio / índice / index)* da ahalegin horren *finis coronat opus*. Liburuan aztergai dira euskalki bizkaitarrak (Markina, Gernika, Bermeo, Arratia, Orozko eta beste hainbat herritako aldaerak); gipuzkoarrak (Hernani, Tolosa, Azpeitia, Zegama); Nafarroa iparraldekoak (Lizaso, Bera, Huarte-Arakil, Etxarri-Aranatz) eta hegoaldekoak (Egües, Olaibar, Artze, Erro, Burgete, Gares); Lapurdikoak (Sara, Ainhoa edota Donibane Lohizune) eta Erronkarikoak (Bidanakoze, Urzainki eta Uztarroze). ■

## Amonak oroimena galtzen duenean

Erregaliz taldea lau neskak osatzen dute. Lagun minak dira, batzuetan haserretzen badira ere; edozein arriskuri aurre egiteko prest daude, beraietako bat egoera zailean baldin badago. Horixe egin beharko dute *Maya eta amona Eli* izeneko liburuan kontatzen den istorioan, Mayaren amonak alzheimerra duela jakiten dutenean. Hasiera batean Mayak ez daki bere gurasoek zergatik eraman nahi duten amona zaharren egoitza batera. Oso independentea izan da beti amona, Milky bere txakurrekin batera bizitzea gustuko du, eta ostegunetan Maya bazkaltzera joatearekin pozik da andrea. Orain berriz, etxez aldatu beharko du, eta gainera Milky txakurra ere kendu egingo diote. Zer egin dezake amonak? Erregaliz taldearen laguntza beharko du, duda gabe. ■



## Maya eta amona Eli

Patricia Schröder


IBAIZABAL

110 orrialde

9 euro

## Birziklatzearen onurak

Hamar urtetik gorako haurrentzat kontakizun aproposa da *Dumper bat kinka larrian*. Obretan gauzak kargatzeko eta edonora eramateko erabili ohi diren brozeldun traktoretxo horien moduko bati gertatutako istorioa kontatzen du. Erabat truskila da Mikelen auzoko dumperra, sekulako zarata ateratzen du, kiratsa dario eta lokatza uzten du nonahi. Auzotarrek manifestazioak egin dituzte haren aurka eta Udalak txikitzelekura bidaltzeko erabakia hartu du. Inori ez zaio gustatzen dumper zaharra, hamaika urte inguruko mutil bati izan ezik, Mikel du izena eta maite du dumper hori. Bere lagunekin batera hormigoi gehiegi daukan hirian gelditzen zaien natura apurra kontserbatzen lagunduko du, dumper zaharra beraien maskota bihurturik. Nola egin hori, ordea? ■



## Dumper bat kinka larrian

Alberto Burgos Cucó

EDICIONES BETA

80 orrialde

8 euro